

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BASTIDAKO UDALA

#### Euskara bekak

2019ko azaroaren 26ko 360/2019 Dekretuaren bidez, euskalduntze gastuen laguntzen deialdia eta horien oinarri arautzaileak onartu ziren. Hona hemen:

LEHENENGOA: Oinarri hauek onartzea: euskara ikasteagatik bekak emateko oinarrien araua.

#### I. Lege eta ekonomia esparrua

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrek, dirulaguntzenak, administrazioak pertsona publiko zein pribatuei egiten dizkien "diru emate" moduan definitzen ditu dirulaguntzak, baldintza hauek betetzen badira:

– Diru ematea onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe egitea.

– Dirua entregatzea baldintza baten pean, alegia, helburu jakin bat betetzea, proiektu bat egikaritzea, jarduera bat gauzatzea, jokabide jakin bat izatea —horiek, dagoeneko gauzatuta edo gauzatzeko daudela—, edo egoera jakin bat gertatzea, eta onuradunak, ordea, ezarrita dauden betebeharrak material eta formal bete behar izatea.

– Finantzaturiko proiektu, ekintza, jarrera edo egoeraren helburu izatea onura publikoko edo interes sozialeko jarduera bat edo xede publiko bat sustatzea.

– 38/2003 Legeak 9. artikuluan ezartzen duenez, dirulaguntzak eman aurretik, arauak onartu beharko dira, dirulaguntzak, hain zuzen, legeak ezarritako moduan emateko oinarriak ezartzen dituztenak. Oinarri hauen xedea da euskara ikasteko ematen diren beken esparrua arautzea, Bastidako udalerrian euskararen ezagutza sustatzeko.

#### II. Betekizun eta baldintza orokorrak

2.1. Udalak bekak emango dizkie Bastidan erroldatuta dauden eta euskalduntze prozesu batean sartuta dauden guztiei.

2.2. Bekak 2018-2019 ikasturtean (2019ko urrira arte) egindako ikastaroen arabera onartuko dira eta honela lagunduko dira diruz:

a) 2018ko urria eta 2019ko iraila bitartean eskatzaileak sei hilabetez baino gehiago langabezian egon badira edo ikasketa ofizialak egin badituzte, beka irakaskuntza gastuen ehuneko 95ekoa izango da gehienez (garraioa eta bestelako gasturik ez da lagunduko).

b) 2018ko urria eta 2019ko iraila bitartean eskatzaileak ez badira egon sei hilabetez baino gehiago ez langabezian ez ikasketa ofizialak egiten, beka irakaskuntza gastuen ehuneko 80koa izango da gehienez (garraioa eta bestelako gasturik ez da lagunduko).

Beka, gehienez ere, honako hau izango da:

1. Langabezian edo ikasketa ofizialak egiten dauden onuradunak: 400,00 euro.

2. Langabezian ez dauden eta ikasketa ofizialak egiten ez dauden onuradunak: 200,00 euro.

### III. Onuradunen definizioa

3.1. Euskara ikasteko ematen diren beken onuradunek baldintzak hauek bete beharko dituzte:

- Bastidako udalerrian erroldatuta egotea.
- Euskara eskolen ehuneko 75era edo gehiagora joan izana egiaztatzea edo, hala badagokio, ikastaroa edo ikastaroak gainditu izana egiaztatzea, HABEk edo gainditze probak ofizialki egiaztatzen dituzten beste erakundeek ziurtagiria emanda.

IV. Euskara ikasteko 2019an emango diren beken gehieneko zenbatekoa eta aurkeztu beharreko agiriak

4.1. 2019ko ekitaldirako esleitutako beken zenbatekoa, guztira, ezingo da izan 3.000,00 euro baino handiagoa. Epe barruan aurkeztutako eskaerak kontuan hartuta, diruz laguntzeko kopuruek guztira gainditzen badute dirulaguntza horiek emateko dagoen aurrekontu esleipena, bana-banako gehieneko zenbatekoak behar besteko ehunekoan murriztuko dira, aipatutako aurrekontu esleipenarekin haiek estali ahal izateko.

4.2. Eskaerak eta agiriak aurtengo abenduaren 20a baino lehen aurkeztu beharko dira Bastidako Udaleko erregistro orokorrean.

4.3. Agiri hauek aurkeztu beharko ditu onuradunak:

- Eskaera orria, euskara ikasteko beka jasotzeko.
- Egindako ordainketaren frogagiria.
- Kasuan kasuko euskaltegiak egindako bertaratze ziurtagiria.
- Zinpeko aitortpena, jasotzen duena eskuratutako dirulaguntzarekin eta eska daitezkeen beste batzuekin ez dagoela inolako gainfinantzaketarik.
- NANaren fotokopia eta hirugarrenaren alta orria behar bezala beteta, beka lehenengo aldiz eskatzen bada, edo zenbatekoa beste kontu korrante batean sartzea eskatzen bada.

### V. Laguntzak izapidetzea

Udalaren administrazio zerbitzuak izapidetuko ditu oinarri hauen bidez araututako beken eskaerak, eta organo eskudunari proposatuko dio horiek onartzea, bidezkoa baldin bada.

**BIGARRENA:** Publizitatea ematea erabakiari, ALHAOn eta udaletxeko iragarki taulan iragarkia jarrita.

**HIRUGARRENA:** Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Administrazio prozedura erkidearen 39/2015 Legearen 123 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri aurretik, aukerako berraztertze errekurtsua jarri ahal izango da hilabeteko epean, erabaki hau jakinarazten den egunaren hurrengotik zenbatuta.

Bastida, 2019ko azaroaren 26a

*Alkatea*

**LAURA PÉREZ BORINAGA**